

Aljeriako hauteskundeak 1994. urtea arte atzeratu dituzte

Mohamed Budiaf lider historikoa izendatu dute Aljeriako lehendakari

Aljerian bost partaidez osatutako Estatu Kontseilu Gorenak Chadli Benjedid lehendakariak utzitako lekua hartu eta hauteskundeak bi urtez atzeratzea erabaki du. Kontseiluan Aljeriako independentziaren gerran parte hartu zuten lider nazionalista historikoak eta integrismotik aldentuta dagoen buruzagi erlijioso bat daude.

ALJER

Aljeriako Estatu Kontseilu Goreneko lehendakari Mohamed Budiaf izendatu dute. Boterea eskuratu duen Kontseiluaren beste lau partaideak Jaled Nezar, Ali Kaci, Ali Harun eta Yiyeni Hadani iman edo buruzagi erlijiosoa dira. Osatu berria den Estatu Kontseiluak hartu duen lehen erabakia hauteskundeak 1994. urtea arte atzeratzea izan da.

Kontseiluaren osaketak kritika ugari jaso ditu, batez ere Hocime Ait Ahmed Indar Sozialisten Fronteko idazkari nagusiaren aldetik. Hocime Kontseiluak inolako legitimatzerik ez duela eta lider historikoek Aljeriak jasaten dituzten arazoak konpontzeko ez direla gai adierazi zuen. «Historikoek dena konponduko dutela sinestaz nahi diote Aljeriako herriari», zioen Ahmedek.

Lider sozialistak agintari berriek FIS alderdi integrista legez kanpo utz dezaketela uste du. «Estatu kolpea



FIS alderdiko militanteak zeharo lurjota daude hauteskundeak bertan behera utzi direlako.

✓ Estatu Kontseilu Gorena osatzeak kritika ugari jaso ditu, batez ere Hocime Ait Ahmed Indar Sozialisten Fronteko idazkari nagusiaren aldetik.

ematera ausartu direnez, dagoeneko edozer gauza egiteko gai dira», zioen Ahmedek. Abdelkader Hachani lider integristak lasaitasunari eusteko deialdia egin bazuen ere, adituen ustez FISekoak klandestinitatera pasatzeko protestaketak egin dira.

BUDIAF Mohamed Budiaf
LIDER Estatu kolpe konstituzionalaren bidez
HISTORIKOA Aljeriako lehendakari bilakatu da. Budiaf hogeitamar urte eman ditu Marokkon eta militarren eskutik, bapatean, lehendakari bihurtu dute. Budiaf 1954. urtean Aljerian zeuden

agintari kolonial frantziarren kontra altxatu zen Aljeriako Iraultza eta Batasunaren Kontseiluko partaidea izan zen. Berehala Askapen Nazionalerako Frontean (FLN) sartu eta Armada frantziarraren kontrako kanpaina militarra prestatzen hasi zen Budiaf.

Frantziarrak Aljeriatik bota bezain laster Budiaf eta Ahmed Ben Bela lider nazionalistaren arteko tirabirak hasi ziren. 1962. urtean Iraultzaren Defentsarako Komite Nazionala osatu ondoren, Parisera eta geroago Marokkora ihes egin beharrean aurkitu da.

Dena prest El Salvadorreko bake akordioa Mexicon sinatzeko

SAN SALVADOR

El Salvadorren hamaika urte iraun duen gerra zibila amaitu eta dena prest dago Mexico hirian behin-betik bake akordioak sinatzeko. Fernando Solana Kanpo Harremanetarako idazkari mexicarrak adierazi zuenez, bere Gobernu osoa pozik dago, El Salvadorreko bake akordioaren sinaketaren egoitza Mexico izan delako. Solanak Mexico eta El Salvadorren arteko harremanak eta kooperazio akordioak aurrerantzean areagotuko direla agindu zuen.

Shafik Handal Farabundo Marti Askapen Nazionalerako Frontearen (FMLN) komandanteak adierazi zuenez, Mexicoko bake akordioa 3.000 elkarte eta personalitatek sinatuko dute. Horien artean Zutik (aintzinako Euskadiko Mugimendu Komunista eta Liga Komunista Iraultzailea) alderdiko ordezkariak

bat izango da Mexico hirian. Akordio honekin 75.000 lagun hil dituen gerra zibila amaituko da. 1980. urtean El Salvadorreko bost talde iraultzaileek ohianean sartu eta armak lortu eta gero FMLN mugimendua osatu zuten.

Gerrilaren izena Augusto Farabundo Marti 1932. urtean fusilatutako lider komunistaren omenez jarri zioten. Garai hartan El Salvadorren junta militar batek zuen boterea bere eskutan. 1984. urtean Jose Napoleon Duarte demokristaua hauteskunde bidez lehendakari hautatu zuten. Gerrilariak eta Gobernuak negoziaketa ugari egin bazituzten ere, akordiorik ez zen lortu talde ultareskuindar eta ultraezkertiarrek atentatu kanpainak burutu bait zituzten. Hamaika urte hauetan gerra zibila ezezik gatazka sindikalak, atentatuak, eta krisi politikoa El Salvadorreko bizitza politikoaz jabetu dira.

EIK-ko hamaika lehendakariak ezohizko gailurra egingo dute gaur Moskun

MOSKU

Estatu Independenteen Komunitatea (EIK) osatzen duten hamaika errepubliketako estatuburuak gaur Mosku-n bilduko dira Tass agintziak atzo adierazi zuenez. Orain arte ez da zertaz hitzegingo duten berririk eman, baina antza denez eztabaidak erreforma ekonomiko eta EIK-ko Indar Armaturen etorkizunaren inguruan zentratuko dira.

Bilera hau ezohizkoa da, beren azkenengo bilera EIK osatzen duten errepubliketako lehendakariak datorren oitsailaren azken egunetan biltzea erabaki bait zuten.

Orain arte Komunitateko lehendakariak egin dituzten bi gailurretan ezin izan dituzten errepublika sovietar ohiek elkarren artean dituzten tirabira nagusienak konpondu, finantz kontuak eta SESB zeneko Armadaren banaketa batez ere. Gaurkoa izango da Moskun egiten duten

lehendabiziko bilera, EIK-ko beste kideek, zentruaren desagerketa nabarmetzeko aurreko gailurrak Moskun egiteari uko egin bait zioten. Bilera hau Errusia eta Ukrainiaren arteko tira-birarik handienak dauden unean egingo da, EIK-ko bi errepublikarik nagusienek Itsaso Beltzeko Armadaren banaketan eztabaida ugari izan bait dituzte.

ERRESERBA
ESTRATEGIKOAK
HUTSIK

Armadaren banaketak bere garrantzia badu ere, egun erreforma ekonomikoek dute lehentasuna, nahiz eta lehendabiziko indar armaturen arazoa konpondu nahi duten. Atzo 'Komsomolskaia Pravda' egunkariak Gennadi Kaliberda-ri, Errusiako Erreserben Komite Estataleko lehendakariordeari eginiko elkarrizketaren arabera, Soviet Batasuna zeneko erreserba estatalek soilik egun bateko fondoak ditu. Kaliberdak zioen azken urte-

Alderdi Komunista kezkatzen hasi da Txinako mugimendu nazionalistengatik

BEIJING

Txinako agintari komunistek estatu erraldoi horretan bizi diren gutxiengoek EIK-ko errepublikaren modura independentziaren bidea hautatu ez dezaten zenbait neurri hartzeko asmoa dutela eman zuten jakitera. Txinako gutxiengoak EIK-ren 7.000 kilometro mugaren ondoan bizi dira gehienbat eta gaur egun eskualde txiroenak direneta bizi dira. Mugaz bestalde gertatutakoa ikusirik, eskualde hauetako mugimendu separatistek hartuko duten jarreraren beldur dira Beijingeko agintariak.

Alderdi Komunistak iragarritako neurrien artean hazkunde ekonomikoaren lortzeko planen ezarpena, ondasun sozialen hedapena eta autonomia politikoaren eskaintza daude. Txinan berrogeitamabost gutxiengo bizi badira ere, Barne Mongolia, Xinjiang, Tibet, Ninxia eta Guangxi eskualdeko biztanleek dira sentimendu nazionalista sendoenak dituztenak. Denetara Txinako biztanlegoaren % 8 gutxiengo baten parteidea da.

Jiang Zeming Alderdi Komunistako idazkari nagusiak, mugimendu independentistak gogor zapalduko dituztela esan zuen. Txinak dagoeneko EIK-ko errepublika guztien independentzia onartu du eta Li Laoqian Merkataritza ministroak 8 errepublika bisitatu ditu. Dena den, Txinarekin mugak dituztenek muga arazoez ez zieten garrantiarik eman Beijingeko agintariak.

tan «erreserba estrategikoak —janariak, erregaiak eta lehengaiak— hamar bider murriztu direla». Erreserba estrategikoei buruzko informazio guztiak hirurogei urtetan zehar sekretupean ondo gordeta egon dira, Stalinek 1931n sortu zituenetik.

Kaliberdaren arabera, normalki erreserba hauek SESBeko errekurtsioen % 1 edo % 2 izan ohi zen. SESB desagertatu ondoren, Errusiak erreserben % 70arekin geratu zuen. Funtzionarioak dramatizotzat jo zuten erreserba estatalk eta gonbarazio gisan adierazi zuen II Mundu Gerran ere hauek ez zirela murriztu bikoiztu baizik.

Kaliberdaren iritziz, SESB desagertaketaren ondoan, ez dagoela erreserba hauek ongi bideratzeko baldintzarik, eta «legeen gerrak eta subiranien desfiteek elikagai guztien murrizketa izan dutela ondorio nagusi bezala».